

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

**Behin betiko onespena ematea Arratzua-Ubarrundiako udalerriko kontzejuei haien obrak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza sortzeko espedienteari**

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

#### **Arratzua-Ubarrundiako udalerriko kontzejuei haien obrak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza**

##### **1. artikulua. Dirulaguntzen xedea**

Ordenantza honen bidez, udalerriko kontzejuei obrak egiteko dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen dira.

##### **2. artikulua. Onuradunak**

Dirulaguntzen onuradun izango dira diruz lagunduko diren obrak egiten dituzten udalerriko kontzeju guztiak.

##### **3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen obrak**

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren edo Obra Txikien Programaren barruan dirulaguntza jasotzen duten obrak baino ez dira diruz lagunduko.

##### **4. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak**

4.1. Obra eta Zerbitzuen Foru Planak eta Obra Txikien Programak diruz lagundutako obrek, baldin eta plan horien ehuneko 80ko dirulaguntza badute, Foru Aldundiak diruz laguntzeko modukotzat jo duen aurrekontuaren ehuneko 10eko dirulaguntza jasoko dute, eta kostuaren ehuneko 50ekoa Aldundiak diruz lagundutakotzat jo ez duen zatiak; azken kasu horretan, gehienez ere 12.000 euroko dirulaguntza jasoko da.

4.2. Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko eta Obra Txikien Programako obrek ehuneko 80tik beherako dirulaguntza badute, kontzejuak ordaindu beharreko zenbatekoaren ehuneko 50eko dirulaguntza jasoko dute, gehienez 12.000 euroko dirulaguntzarekin.

4.3. Diruz lagundutako obrak eta inbertsioak egiteko beharrezkoak diren ordainsari teknikoetarako, hau da, proiektua idatzi, zuzendu, ikuskatu eta bestelakoetarako, ehuneko 40ko dirulaguntza ezartzen da.

##### **4.4. Dirulaguntza muga obra eta inbertsioetarako:**

Kontzeju bakoitzak ezin izango dute urteko eta obrako 90.000 euro baino gehiago jaso. Obra bera dela ulertuko da, jarduketa baten barruan egonik, urte batean baino gehiagotan edo fase desberdinetan egiten bada.

Kontzejuak, gutxienez, dirulaguntzaren xedearen kostuaren ehuneko 5 ordaindu beharko du.

##### **5. artikulua. Kontzeju onuradunen betebeharrak**

- Dirulaguntzaren eskaera udalean aurkeztea, aldundiak emandako dirulaguntza lortu ondoren.

- Dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztea, obra amaitu eta hilabeteko epean, eta aldundiak eta beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzen likidazioa egitea.

- Urteko kontuak aurkeztea (gastuak, diru sarrerak eta kutxako izakinak), behar bezala onartuta eta Arabako Foru Aldundiak eskatutako formatuan, betiere kontuei dagokien urtearen hurrengo urteko maiatzaren 1a baino lehen, edo erregelamenduz ezarritako egunean.
- Udalarekin dituen zorrak ordainduta izatea, eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Helburu bera duen udalaren beste dirulaguntzarik jaso ez izana azken hamar urteetan.
- Argi publikoetarako obretan, energia aurrezteko eta argi kutsadura saihesteko behar diren neurri guztiak hartuko dira.
- Obra berrietarako edo kirol edo gizarte eraikinak eta instalazioak birgaitzeko dirulaguntzen eskaeren kasuan, kontzejuak aginduko du ez dituela horiek errentan emango.
- Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo haren jarrera izatea.
- Udalaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, bai eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.
- Kontrol organo eskudunek egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea, eta jarduketa horietan eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztapenak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.
- Dirulaguntzaren xede den obraren finantzaketa publiko dela agertuz publizitate egokia egitea.
- Itzulketa egiteko arrazoietakoren batean sartuta egonez gero, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko da.

## **6. artikulua. Eskaerak eta agiriak**

6.1. Dirulaguntzak jasotzeko, I. eranskinen eskabide ereduarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Obra lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena, dagokionaren arabera.
- Zer aurrekontutarako eskatzen den dirulaguntza.
- Helburu bererako lortutako beste dirulaguntza batzuen ebazpenen kopia.

6.2. Dirulaguntzak jasotzeko, II. eranskinen eskabide ereduarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Faktura.
- Jasotako beste dirulaguntza batzuen zergatia arrazoitzen duten agiriak.

## **7. artikulua. Espedientea hastea eta amaitzea**

7.1. Espedientea hasteko, kontzejuak eskabidea aurkeztu beharko du.

Dokumentazio guztia dagoela egiaztatuta eta dagozkion txostenak eman ondoren, informazio batzordeari igorriko zaio, dagokion irizpena eman dezan. Irizpena osoko bilkuran aztertuko da, dagokion erabakia hartuko da eta eskaera egin duen kontzejuari jakinaraziko zaio.

Ezingo da dirulaguntzarik eman aurrekontu esleipenik egin gabe.

7.2. Espedientea amaituko da kontzeju onuradunak 5. artikuluan ezarritako epean ordainketa eskaera eta beharrezko egiaztapenak aurkeztu dituenetik.

Dokumentazio guztia dagoela egiaztatu eta dagozkion txostenak eman ondoren, informazio batzordeari igorriko zaio, dagozkion irizpena eman dezan. Irizpena osoko bilkurari helaraziko zaio, eta horrek erabaki bakarria hartuko du urtean egingo den azken bilkuran, eta urte osoan zehar kontzejuei emandako zenbatekoak ordainduko dira.

## 12. artikulua. Itzultzea

Kontzeju onuradunak dirulaguntzaren xede den obra edo proiektua egin beharko du, eta dirulaguntza ematea eragin zuten jokabideak hartu, onartutako konpromisoak betez.

Hori egiten ez badu, jasotako kopuru osoa edo zati bat itzultzeko eskatuko zaio eta, jasotako kopuruak itzultzeaz gain, ordainketa egin denetik itzultzea erabakitzen den arteko berandutze korrituak eskatuko zaizkio Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak ezarritako zenbatekoan, udal honek onartutako dirulaguntzen ordenantza orokorrean adierazitako kasuetan, egoki izan daitezkeen ekintza penalak gorabehera.

Hona hemen dirulaguntza itzultzeko arrazoiak:

- Dirulaguntza jasotzeko baldintzen gainean gezurra esan bada edo dirulaguntza ez ematea ekar zezakeenik ezkutatu bada.
- Proiektua osorik edo zati batean ez betetzea, edo dirulaguntza ematea eragin duen jokabidea ez hartzea.
- Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo justifikazioa behar bezalakoa ez bada.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 18.4 artikuluan jasotzen duen zabalkunderako bitartekoak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasota dauden egiaztatze eta finantza kontrolerako jardunei aurka egitea, aitzakia jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuak kontserbatzeko betebeharrak ez betetzea ere, horren ondorioz ezinezkoa bada jasotako funtsei emandako erabilera egiaztatzea, helburua betetzea edo helburu bererako beste diru sarrera batzuk egiaztatzea, edozein administratziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik etorriak direla ere.
- Udalak ezarritako betebeharrak eta kontzeju onuradunek hartutako konpromisoak ez betetzea.
- Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio edo erakunde batzuenekin batera, egin beharreko obraren edo inbertsioaren kostuaren ehuneko 95 gainditzen badu, obraren edo inbertsioaren kostuaren gaintik lortutako soberakina itzuli beharko da.
- Legean ezarritako beste edozein.

## 9. artikulua. Emandako dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, kontzeju onuradunak haren edukia aldatzea eskatu ahal izango du, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea eragin dezaketen inguruabarrak gertatzen badira.

Udalak aldaketa egingo du, kasuan kasuko informazio batzordeak txostena eman ondoren, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badira, nahierara:

- Aldaketa arrazoitzen duten inguruabarrak onuradunaren nahiaren menpekoak ez badira.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatu badira, eta hortaz, emandako dirulaguntza berrikusteko beharra badago.

Aldatzeko eskabidea jarduera burutzeko epealdia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

**10. artikulua. Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak**

Ez da ordainketa aurreraturik eta konturako ordainketarik egingo, Foru Planean jasotako obretan izan ezik. Azken horietan egiaztagiri partzialak aurkeztu ahala ordainduko da dirulaguntza.

**11. artikulua. Arau hausteen erantzuleak**

Dirulaguntzei buruzko administrazioko arau hausteen arduradunak izango dira, egiteagatik edo ez egiteagatik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arau hauste gisa tipifikatutako kasuetan sartzen diren administrazio batzarreko kideak.

**12. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea**

Lege horretan tipifikatutako egite edo ez-egiteek ez dute erantzukizunik sortuko dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboagatik, honako kasu hauetan:

- Ezinbestezko kasuetan.
- Erabaki kolektibo baten ondorio direnean, beren botoa salbatu dutenentzat edo erabaki hori hartu zen bilerara joan ez direnentzat.

**13. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen araubidea**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako araubidea aplikatuko da.

**14. artikulua. Indarrean jartzea**

Behin betiko onesti den ordenantza hau ALHAOn argitaratuko da oso-osorik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro ondoren indarrean jarriko da.



## I ERANSKINA

## KONTZEJUEK OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

<b>KONTZEJUA</b>		<b>IFK</b>	
<b>ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)</b>		<b>NAN-AIZ-IFK</b>	
<b>KOMUNIKAZIOETARAKO ETA JAKINARAZPENETARAKO DATUAK</b>			
Kalea	Zk.	Solairua	Herria
Posta kodea	Udalerria	Lurraldea	
Helbide elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.	

Jakinarazpenak, honi:  Erakunde interesduna  Ordezkaría

Jakinarazi, honen bidez:  Posta  Posta elektronikoa

<b>AZALTZEN DU:</b>
Honako programaren barruan:
<input type="checkbox"/> Obra eta Zerbitzuen Foru Plana
<input type="checkbox"/> Obra txikien programa
Dirulaguntza jaso duela, ondorengo obrarako..... eta dirulaguntzaren kopurua hau dela:.....
Obrak egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen ordenantza 5. Artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela.
<b>ESKATZEN DU:</b>
Dagokion dirulaguntza ematea.
<b>ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA (NAHITAEZKOA)</b>
<input type="checkbox"/> Obra-baimena
<input type="checkbox"/> Aurrekontua
<input type="checkbox"/> Bestelako dirulaguntzen ebazpenen kopia
<input type="checkbox"/> Beste administrazio edo erakundeetan aurkeztutako dirulaguntza-eskaeren kopia.
<b>DATA ETA SINADURA:</b>

DATUEN BABESA	
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrak eta/edo interesdunen onespenez legitimatzen du.
Helburuak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da lagapen gehiagorik egingo, lege-betebeharrak ez badago.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu, honakoaren aurrean, erantzule gisa: Arratzua-Ubarrundiako Udala. Uribea kalea 12, 01520 Durana. Datu horien kontserbazioa legeak behartzen du, beren helburuaren arabera. Datuak ez dira erabaki automatizatuak hartzeko erabiliko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)



## II ERANSKINA

## KONTZEJUEK OBRAK EGITEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZA ORDAINTEZKO ESKAERA

KONTZEJUA		IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOETARAKO ETA JAKINARAZPENETARAKO DATUAK			
Kalea	Zk.	Solairua	Herria
Posta kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Helbide elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.	

Jakinarazpenak, honi:  Erakunde interesduna  Ordezkarria  
 Jakinarazi, honen bidez:  Posta  Posta elektronikoa

<b>AZALTZEN DU:</b>
..... obra bukatu duela, eta obra horretarako Udalak honako kopurua duen dirulaguntza eman ziola: .....
<b>ESKATZEN DU:</b>
Jasotako dirulaguntza ordaintzea.
<b>ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA (NAHITAEZKOA)</b>
<input type="checkbox"/> Faktura
<input type="checkbox"/> Helburu bererako jasotako bestelako dirulaguntzak egiaztatzeko dokumentazioa.
<input type="checkbox"/> Hala badagokio, eskatutako bestelako dirulaguntzei uko egin izanaren akordioaren kopia.
<b>DATA ETA SINADURA:</b>

DATUEN BABESA	
<i>Arduraduna</i>	Arratzua-Ubarrundiako Udala
<i>Helburua</i>	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
<i>Legitimazioa</i>	Datuen tratamendua lege-betebeharrak eta/edo interesdunen onespenez legitimatzen du.
<i>Helburuak</i>	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da lagapen gehiagorik egingo, lege-betebeharrak ez badago.
<i>Eskubideak</i>	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu, honakoaren aurrean, erantzule gisa: Arratzua-Ubarrundiako Udala. Uribea kalea 12, 01520 Durana. Datu horien kontserbazioa legeak behartzen du, beren helburuaren arabera. Datuak ez dira erabaki automatizatuak hartzeko erabiliko.

Arratzua-Ubarrundiako Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Dura, 2020ko otsailaren 19a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*